

Milango Scalako Orkestra Filarmonikoak itxiko du Hamabostaldia, Riccardo Chaillyren gidaritzapean bi kontzertu emanda

- Abuztuaren 29an, larunbata, Dvoraken lanari eskainiko zaion kontzertu monografikoan, Julia Hagen biolontxelista austriarra ariko da bakarlari gonbidatu.
- Amaiera kontzertuan (abuztuak 30, igandea) orkestrak Donostiako Orfeoia izango du lagun.
- Azken sarrerak quincenamusical.eus webgunean eta Kursaalera eta Victoria Eugenia Antzokiko leihatiletan salgai.

Azken egunotan Sir John Eliot Gardinerren The Constellation Choir & Orchestra eta Jaap van Zwedenek zuzendutako Seoul Philharmonic Orchestra gurean izan ondoren, **87. Donostiako Musika Hamabostaldia Milango Scalako Orkestra Filarmonikoak, Riccardo Chailly musika zuzendariaen gidaritzapean emango dituen bi kontzertuekin amaituko da.** 2024ko udan jaialdira egindako lehen bisitan lortutako arrakasta itzelaren ostean, orkestra eta zuzendari italiarrek abuztuaren 29an, **Julia Hagen** biolontxelistarekin batera, Dvoráki eskainitako monografikoa aurkeztuko dute, eta **30eko amaiera kontzerturako**, Verdi eta Tchaikovskyren lanak aukeratu dituzte; horretan **Donostiako Orfeoia** izango dute lankide. Bi hitzorduak **20:00etan** hasiko dira **Kursaal Auditorioan**. Emanaldi horietarako azken sarrerak quincenamusical.eus webgunean eta Kursaalera eta Victoria Eugenia Antzokiko leihatiletan eros daitezke.

Milango Scalako Orkestra Filarmonikoa 1982an sortu zen Claudio Abbadoren eskutik, Scala antzokiko orkestrako musikariek osatutako erakunde autonomo gisa, Milango koliseo historikoan operan jardutearekin batera arlo sinfonikoa joratzeko. Antzerkiko orkestra titularra osatzen duten musikari berberak osatzen badute ere, orkestra filarmonikoaren xedea da erreperitorio sinfonikoa lantzea eta bere sorrerak ahalbidetu zuen orkestra-erreperitorio zabalago bat jorratzea, zuzendari gonbidatu gehiagorekin aritzea eta nazioarteko jardura biren eta grabazioen bidez areagotzea. Orkestra filarmonikoak bere denboraldi sinfoniko propioa du, bere marka, bere programazioa eta bestelako hainbat ekimen sustatzen ditu, esaterako, urtero Piazza del Duomo milaka pertsona biltzen dituen *Concerto per Milano*. Claudio Abbadoz gain, Filarmonica della Scala-k lotura estua izan zuen Carlo Maria Giuliniarekin (90 kontzertu baino gehiagotan zuzendu zuen) eta Riccardo Mutirekin (1987tik 2005era bera izan zen zuzendari titularra). Eta, jakina, baita Riccardo Chaillyarekin ere: 2015ean bere gain hartu ondoren, urte honen amaieran utziko du La Scalako eta Filarmonikako musika-zuzendari izatearen ardura; azken hamarkada honetan, Chaillyk orkestraren nazioarteko jarduna indartu du, bira eta disko-grabaketa ugariarekin, besteak beste, konpositore italiarrei eskainitako diskoena. Halaber, Scalako Filarmonikoak azken 40 urteetako zuzendari garrantzitsuenekin egin du lan: Georges Prêtre, Lorin Maazel, Wolfgang Sawallisch, Zubin Metha, Leonard Bernstein, Daniel Barenboim eta beste asko.

Riccardo Chailly, zuzendarien urrezko belaunaldi baten atzeneko ordezkarietako bat izateaz gain, azken hamarkadetako batutarik eraginkorrenetako bat ere bada. Milanen jaio zen 1953an, eta, Luciano Chailly konpositorearen seme, musika giroan hazi zen. Perugia, Erroma eta Milango kontserbatorioetan konposizioa eta zuzendaritza ikasi ondoren, Sienan, Franco Ferrararen tutoretzapean osatu zuen zuzendari prestakuntza; hogeitaz besterik ez zituela Claudio Abbadoren laguntzaile bihurtu zen Milango Scala antzokian. Geroztik, Berlingo Irratiko Orkestra Sinfonikoaren, Amsterdamgo Royal Concertgebouw Orkestraren eta Leipzigeke Gewandhausorchesterren titular izan da, eta operaren alorrean ibilbide oparoa egin du agertoki nagusienetan: New Yorkeko Metropolitan Opera, Londresko Covent Garden, Vienako Estatu Opera edo Municheko Bayerische Staatsoper, besteak beste. Aldi berean, Chaillyk disko ugari grabatu du — 150 baino gehiago, horietako asko Decca zigiluarentzat —, Bach zein erreperitorio erromantiko handia eta XX. mendeko musika bilduta, eta nazioarteko sari ugari jaso ditu horiei esker. Hamabostaldian, 1997 eta 2003 urteetan Amsterdamgo Concertgebouw Orkestraren zuzendari aritu zen, eta 2024an, aldiz, Scalako Orkestra Filarmonikoaren buru zela.

Abuztuaren 29 larunbata

Egitaraua **Antonín Dvorak** konpositore bohemiarraren lanari eskainitakoa izango da: bere bi obra ezagun izango dira entzungai. Batetik, ***Biolontxelorako kontzertua***, 1894 eta 1895 artean, New Yorkeko National Conservatory of Music-eko zuzendari izan zen azken urtean idatzi zuena; 1896an Londresen estreinatua, biolontxelorako idatzitako garai guztietako kontzertu handienetakotzat jotzen da eta oso miretsia da bere orkestra-idazkeraren aberastasunagatik eta bakarlariaren distira zein lirismoagatik; izan ere, malenkonia sakoneko uneak birtuosismo handiko pasarteekin tartekatzen ditu. Bakarlariarentzako pasarte hori **Julia Hagen** austriar biolontxelista gazteak interpretatuko du. 1995ean Salzburgon, Hagen Quartett taldeko musikari-familia ospetsuaren baitan jaioa, bere jaioterriko Mozarteum-en eta, ondoren, Vienen, Berlinen eta Kronberg Academyn egin zituen musika-ikasketak. Hagen bere belaunaldiko promesa handienetako bat bihurtu da eta sarri aritzen da Salzburgo, Verbier edo Gstaad jaialdietan, eta Zuricheko Tonhalle, Berlingo Konzerthausorchester edo Linzeko Bruckner Orchester orkestren lankide izana da. 1684ko Francesco Ruggieri biolontxelo aparta du Hagenek, eta horren soinu bero eta sakona ezin hobeto egokitzen zaio Dvoraken kontzertuaren unibertso liriko eta nostalgikoari.

Kontzertuaren bigarren zatian, **9. Sinfonia mi minorrean, op. 95, "Mundu Berriarena"** ospetsuaz gozatzeko aukera izango da. Hori ere Estatu Batuetan egon zen garaian idatzi zuen Dvorakek, 1893an. Bere jaioterri Bohemiarekiko nostalgia eta Amerikako soinu-paisaiarekiko lilura islatzen ditu aldi berean. Horretarako afroamerikar doinu indigenak eta espiritualak sakon aztertu zituela adierazi zuen Dvorakek, ez bere horretan aipatzeko, horien izpiritua eta berezitasun erritmiko eta modalak atzemateko baizik, orkestrazio erromantikoaren baliabide guztiekin landutako gai original bihurtu zituen. *Largo* mugimendu motel ospetsua, gerora *Goin 'Home* abestiari bide eman zion korno ingelesaren Gaia duena, herriminenaren ikur bihurtu zen, eta *Scherzo* eta *Finale*ren oldar erritmikoak, aldiz, nazio amerikar gaztearen bizitasuna gogorarazten zuten, garaiko zenbait kritikoren esanetan.

Abuztuaren 29 larunbata, 20:00. Kursaal Auditorioa

MILANGO SCALAKO ORKESTRA FILARMONIKOA

RICCARDO CHAILLY zuzendaria

JULIA HAGEN biolontxelo

Abuztuaren 30 igandea – ITXIERA KONTZERTUA

Abuztuaren 30ean jaialdiari amaiera emango dio Milango Scalako Orkestra Filarmonikoak eta Riccardo Chaillyk emango duten kontzertuak. **Egitarauan**, Chaillyren bi berezitasun nabarmen: **Giuseppe Verdi eta Piotr Ilich Tchaikovsky**. **Verdiren "La forza del destino"** operako **Oberturak** irekiko du emanaldia; 1869an operari txertatua, benetako poema sinfoniko independente gisa dago ondua: patuaren gaia iragartzen duten hiru akorde sendorekin hasi eta *Allegro agitato e presto* urdurira igarotzen da; horretan operaren tentsioa kondentsatzen duten gertakari lirikoak eta leherketa dramatikoak tartekatzen dira. Ondoren, Verdik 1886 eta 1897 bitartean, italieraz eta latinez, askotariko ahots eta orkestra taldeentzat konposatu zituen ***Lau pieza sakratuetako bi*** entzuteko aukera izango da (gerora erabaki zuen horiek multzo homogeneo batean biltzea); ***Stabat Mater*** koru misto eta orkestrarako idazkeragatik nabarmentzen da; Ama Birjinak gurutzearen oinean bertan pairatutako sufrimenduari buruzko testuaren dramatismoa espresibitate ia operistiko batek areagotzen du, dinamika, kolore eta testurako kontrasteekin, koruari zehaztasun eta ñabardurarako gaitasun izugarria eskatzen duena. Koru bikoitzerako eta orkestrarako ***Te Deum*** Verdiren azken lorpen handienetakotzat jotzen da; otoitz soileko uneak eta gorazarre handiko uneak konbinatzen ditu, koru- eta orkestra-masa egitura monumental batean gainjarrita. Horiek interpretatzeko, Scalako Orkestra Filarmonikoak **Donostiako Orfeoia** izango du lagun. Koru misto historikoa 1897an sortu zen, eta Europako koru amateur talde garrantzitsuenetakotzat jotzen da, nahiz eta bere jarduna erdi-profesionala den; urtean batez beste 35-40 kontzertu ematen ditu, eta abesbatzaren erreperorioak ehun bat obra sinfoniko-koral, berrogeita hamar opera eta zarzuela lan baino gehiago eta folkloreko eta polifoniako obra ugari biltzen ditu.

Hamabostaldiak Orfeoia bidaide izan du bere historia osoan zehar (jaialdiaren 70 ediziotan baino gehiagotan parte hartu du), eta sarritan gonbidatua izaten da jaialdiaren amaierako kontzertuetan.

Bigarren zatian, eta berriro ere patuaren gaiari helduta, Riccardo Chaillyk XIX. mende amaierako sinfoniarik originalenetako bat zuzenduko du, **Piotr Ilich Tchaikovsky-ren 4. Sinfonia, op. 36**, non sinfonismoak eta baletaren espirituak elkarri laguntzen dioten orkestra-birtuosismoaren, lirismoaren eta pasio erromantikoaren erakustaldi paregabea. Tchaikovskyk 1877 eta 1878 artean konposatu zuen, bere ezkontza tirabiratsuak eta Nadezhda von Meck mezenasarekin zuen harreman epistolar estuaren hasierak markatutako bizi-aldian. Mezenas horri eskaini zion sinfonia, eta haren izaera "programatikoa" zehatz-mehatz azaldu zion, destinoaren ideian zentratua. Horrela, lehen mugimendua metal fanfarria ikusgarri batekin irekitzen da, "patuaren gaia" deritzona, partitura osoan zehar aldizka berragertuko dena, zorion bulkadak zapuzten dituen eta unerik argitsuenak ere iluntzeko mehatxua egiten duen indar gisa. *Allegro con fuoco* azken mugimenduan soilik gailenduko da azkenean musikaren energia positiboa, eta sinfonia garaipen eztanda batekin amaituko da.

Kontzertu honek **Laboral Kutxaren** babesa du.

Abuztuaren 30 igandea, 20:00. Kursaal Auditorioa – ITXIERA KONTZERTUA

MILANGO SCALAKO ORKESTRA FILARMONIKOA

DONOSTIAKO ORFEOIA (Óscar Rodríguez, abesbatza zuzendari gonbidatua)

RICCARDO CHAILLY zuzendaria